Igerabide eta Odriozola, a zer parea!

Elena Odriozolaren ametsa paperezko antzerkia egitea zen. Gauzatu du. Udazkenean ikusiko dugu emaitza

Juan Kruz Igerabideren liburu berriak olerki biografiko bat dakar, hil zen arrebari buruzkoa. Honela bukatzen da: «Hau ez da poema bat»

Marta Cárdenasek batez ere koloreak ekarri zituen 1997an Indiara egindako bidaiatik. Ikustekoa izan zen haren aurkezpena 'Obabakoak' liburuarena, lehengo astean Bilbon



LAUBIDE

FELIX IBARGUTXI

Donostiako **Nerea** argitaletxeari bi sari eman dizkiote, **'Eguberria'** liburua dela-eta. Kultura Ministerioaren sari nazionala bata, Juan de Yciar institutuarena bestea. Ondoen argitaratutako liburuentzako sariak izan ohi dira horiek.

Berez, Gabonei buruzko bi liburu dira 'Eguberria', bata euskarazkoa, bestea gaztelerazkoa, eta erdarazko testuak ez dira itzulpen hutsa. **Juan Kruz Igerabide**k lan bikoitza egin behar izan du. Marrazkiak bai, berak dira. Horien egilea **Elena Odriozola** dugu. Hara hor bi izen handi. Jakina, testu eta ilustrazio kaskarrekin nekez osa daiteke argitalpen ederrik.

Kasualitatea: Aieteko kultur etxean antolatu ohi den **Ilustratzailearen Txokoa** Elena Odriozolaren materialekin osatu da oraingoan. Haren objektu pertsonal batzuk ikus daitezke armairutxo hartan: pintzel batzuk, urrutietan argitaratutako liburu ilustratu batzuk, bere pertsonaien irudi solte batzuk, bere betiko ezaugarri horrekin: lepalodiak dira. «Iruditzen zait horrela lurrean finkatuago daudela», esan zuen behin telebistarako erreportaje batean (htpp://vimeo.com/11244919).

'Eguberria' libururako oso kolore gutxi erabili zituen Odriozolak: beltza, gorria eta zuria. Ez zen izan argitaletxeak hala agindu ziolako, hartara argitalpena merkeago atera zedin. Ez, marrazkilariaren hautua izan zen sotiltasun hori.

2010eko bideo horretan gauza interesgarriak esan zituen: 1997an, berak lan egiten zuen publizitate-agentziako arduradunak esan zionean itxi beharrean zegoela, arazo ekonomikoengatik, poztu egin zen. Ordurako probatua zeukan ilustrazio-gintza (Elkar etxerako lan solte batzuk) eta bazekien aurrerantzean zertara dedikatu behar zuen. Horrez gain, esan zuen paperezko antzerkia egitea gustatuko litzaiokeela. Urteak pasa ziren eta orain badakigu amets hori ere bete duela. «Frankensteini buruzko antzerkia egin dut, kartoiak erabilita. Nórdica argitaletxearen bidez plazaratuko dut, urrian-edo», adierazi dit.



Ilustratzailearen Txokoa Elena Odriozolari dago eskainia. Behean, Marta Cárdenas, :: SARA SANTOS / IDOIA GONZALEZ

–Eta orain zertan ari zara?

–Orain ere Nerea argitaletxerako lanean. Ipuin klasiko batzuk ilustratzen: Andersen, Perraultenak, Oscar Wilderen bat ere bai...

Eta Igerabide? Izendatu zuten orain hilabete batzuk EHUko **Mikel Laboa Katedra**ko zuzendari eta horixe du gaur egun lantegi nagusi. Katedra horrek egin berri ditu deialdi batzuk diru-laguntzak banatzeko, eta hasiak dira proiektuak iristen. Doktore-tesien deialdirako ere aurkeztu dira ikerlari batzuk. Pozik da Igerabide alde horretatik. Baina Juan Kruzek sekula ez dio utzi literatur lanari, eta orain ere ari da.

–Zertan ari zara?

–Euriari buruzko ikuskizun baterako testuak idazten: poesiak, ipuin labur bat... Dantza izango da ikuskizunaren ardatza. Ezin dizut gehiago zehaztu, oraindik ez baitakigu aurrera aterako den.

Duela aste pare bat **Biblioteca Vasca Bilingüe** delakoan liburu batzuk plazaratu ditu. Besteak beste, **'Haur korapiloak - Trabaletras'**, haurrentzako hitz-joko bilduma. Harrigarria da gure idazlea: kapaz da jatorrizko euskal bertsioari buelta eman eta erdal parekidea sortzeko, askotan errima eta guzti.

Hona ale bat, itsasoari buruzko igarkizuna:

Mahai-zapi urdin zabal-zabala / norbait beste aldetik astintzen... / kaioak garrasika kexu dira / ez baita lisaturik gelditzen.

Un enorme mantel azulado / que sacuden desde el otro lado... / las gaviotas chillan con enfado / porque no queda bien alisado.

Baita ere, 2009ko **'Aienatze-marra'** haren bertsio hirueleduna atera du Igerabidek aipatutako bilduma horretan (euskaraz, gazteleraz eta errumanieraz). Berak egin du gaztelerazko itzulpena. Bere garaian nahiko oharkabean pasatu zen 'Aienatze-marra', baina atentzioa ematen duen lana da, besteak beste olerki-bilduma benetan zabala delako. Denboraren iragaite azkarra eta heriotza dira hango bi gai nagusi, baina esan liteke poesia soziala ere badela, garaiko poesia soziala, jakina.

Liburua zabaldu eta topo egin dut 'Nire arrebak ere bai' izenburuko olerki honekin:

Nire arrebak ere eskatu zidan
heltzeko bitartean eskutik
heriotzarik duinenaren ohantzean
bihotz ustelen eta begi itsuen artetik.
Haren hatzei irristatzen utzi nien
eta neure buruari ez diot barkatzen.
Hilotz aurkitu nuen goizean
eskuak luzaturik jarraitzen zuen.
Hau ez da poema bat.

Kazetarien galdera tipikoa egin diot:

–Egia al da arreba hil zitzaizula?

–Bai, aspaldi, hiesak jota. Orduan denak hiltzen ziren. Olerki biografikoa da.

Marta Cárdenasen koloreak

Aldameneko argazki horretan **Marta Cárdenas** ageri da, **'Obabakoak'** liburuaren edizio berriko marrazkiak egin dituen pintorea. Horixe izan du lehenbiziko ilustratzaile-lana. Lehengo astean oso aurkezpen bromosoa egin zuen Bilbon (ikusgai dago bideoa Erein argitaletxearen webgunean). Bruxa bitxia zeraman soinean, lagun batek oparitutakoa, «gaurko ekitaldirako oso aproposa». Izan ere, jantzi horretan krokodiloak ageri ziren, eta 'Obabakoak'-eko motibo printzipala muskerra da. «Europarrok oso motelak gara, ikusi besterik ez dago nola janzten garen. Hozkirria ematen dugu, anorexikoak gara, koadroetan ez dugu kolorerik erabili nahi», esan zuen.

fibargutxi@diariovasco.com